

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
0 positibo berri	zehaztu gabe hildako	75 positibo berri	1 hildako
2.314 positibo guztira*	1.536 hildako EAEn	9.234 positibo guztira	66 ospitalizatuta
*Hernanin 60 Astigarragan 20		Sendatuak: 16.454 EAEn; 5.622 Naf.	

Aparkaleku arautuen kontrola martxan, bihar

Udaltzaingoa berriro hasiko da, bihartik aurrera, Atzieta, Izpizua, Nafar, Elkano eta Txirrita kaleetako eta osasun zentroko aparkalekuetako ordutegiak kontrolatzen.

HERNANIN TRAFIKOA

Koronabirusaren eraginez ezarritako osasun alarma-egoera medio, bertan behera geratu zen herriko aparkaleku arautuen guneeetako kontrola, baina bihartik aurrera berreskuratu egingo du Udalak. Gauzak horrela, bihartik aurrera berriro ere martxan jarriko dira Atzieta, Izpizua, Nafar, Elkano eta Txirrita kaleetako eta osasun zentroko aparkalekuetako arauak.

Betiko arauak, hiru eremuetan

Bihartik aurrera aplikatuko diren arauak, beraz, ohikoak, azkenekoz 2018an onartutako ordenantzan zehaztutakoak



Bertakoek gune urdinetan aparkatu dezakete, eta gainerakoak, gorrietan, baina ordutegiak denei eragiten die.

izango dira, herriko hiru eremuetan.

Aurrenekoan, Atzieta eta Kaxkoko kaleak hartzen dituenean, astelehenetik larunbatera ordu eta erdiz aparkatu dezakete gehienez, 08:00etatik 20:00etara, bai bertakoek, gune urdinetan, eta baita beste edonork ere, gune gorrietan. Iluntzeko 20:00etatik 08:00etarako

tarteetan, berriz, bertakoek bakarrik aparkatu dezakete.

Bigarren eremuan, Izpizua, Txirrita, Elkano eta Nafar kaleak hartzen dituenean, araua bera da astelehenetik ostiralera. Baina, larunbatetan, 08:00etatik 14:00etara aplikatzen da ordu eta erdiko muga. Eguerdiko 14:00etatik 08:00ak arte, berriz, bertakoentzako da, bakarrik.

Azkenik, hirugarren eremuan, osasun zentroaren ingurua hartzen duen horretan, Osakidetza erabiltzaileek bakarrik utzi dezakete kotxea, astelehenetik igandera, 08:00etatik 20:00etara, eta gehienez ere, ordubetez.

Ordenantza zehatza Udala-ren webgunean ikusi daiteke, www.hernani.eus helbidean. **K**

Merkatari eta ostalariei zuzendutako laguntza eta ikasketa saioak jarri ditu martxan, Udalak

Ekainaren 8an euskeraz emango da, eta 10ean, gaztelaniaz. Ekainaren 3ra arte eman daiteke izena, doan. Ez da Berriak-eko kide izan behar.

HERNANI MERKATARITZA

Elkar laguntza eta elkar ikasketa saioak antolatu ditu Udalak, Berriak elkarrekin elkarlanean, herriko merkataria eta ostalari guztiei zuzenduta. Saioak doan izango dira, eta ez da Berriak Merkataria eta Ostalari elkarte kide izan behar, parte hartzeko.

Izen-ematea asteazkenean itxiko da.

Indartu eta aktibatze bideak
Saio hauen helburua izango da, «esparru sozioekonomikoaren eraldaketaren testuinguruan, Hernaniko merkataria eta ostalari egoera berrian hobe eta ahalmen haundiagoz kokatzeko bidelaguntza zein elkar ikasketaren eremuen bidegiletza proposatzea. Berritzetik eta elkarlanean aritzetik, indartu eta aktibatze bideak, hain zuzen ere».

Saioak Harago Aholkularitzako Aran Erasun coach eta trebatzaileak gidatuko ditu. Aurrera, Hernaniko merkataritza-aren eta ostalaritza-aren aukeren, mehatxuen, indarguneen eta ahulguneen azterketa egin eta hobetzeko eta garapenerako bideak sortuko dira, elkarlanean. Era berean, ahalmen mapa hedatuko da, eta azkenik, irekiera faseko mugimenduari, «emotionala zein jarduerari loturikoa», arreta jarriko zaio.

Saioak, Zoom bidez
Ekainean bi saio egingo dira; 8an,

euskeraz, eta 10ean, gaztelaniaz. Biak, Zoom plataformaren bidez izango dira, 14:15etatik 16:00etara, eta gehienez, 15 lagunentzako izango da tokia, bakoitzean.

Argibide gehiago izena ematen dutenei bidaliko zaizkie. Izena emateko, gurutze@hernani.eus helbidera idatzi behar da.

Irailean eta azaroan, gehiago
Aipatutako lanketa ekaineko saioetan egingo da, 'berrikuntzarako mapa' osatzeko asmoz. Baina irailean eta azaroan saio gehiago antolatzeko asmoa dauka Udalak. **K**

Hondakin tasak, ostiralera arte

HERNANI TASAK

Udalak jakinarazi du ostiralean, ekainaren 5ean bukatuko dela epea, 2020ko bigarren hiruhileko Hondakinen tasa eta 2020ko lehenengo hiruhileko Industri Hondakinen tasa ordaintzeko. Helbideratuta dauden errezi-boak epearen azken egunean kobratuko dira, eta helbideratu gabekoak, errezi-boak jaso ez badute, udal txeko bilketa bulegora deitu behar dute 943 33 70 34 edo 943 33 70 45 telefonoetara, epea bukatu aurretik.

Laguntzak, autonomo eta mikroenpresei

HERNANI DIRU-LAGUNTZAK

Tokiko ekonomian Covid-19ak eragindako osasun-krisialdia dela-eta, norberaren konturako langileen eta mikroenpresen kostuak arintzeko ez-ohiko diru-laguntzak emango ditu Udalak, 525.000 euro artekoak. Diru-laguntzen berri ikusi daiteke info-subvenciones.es edo hernani.eus webguneetan eta HHZ bulegoan.

Administrari izateko, hiru postu

ASTIGARRAGA LAN ESKAINTZA

Udalak administrari lanposturako hiru plaza esleitzeko hautaketa-prozesua jarriko du martxan. Hiru plazaetako bat barne sustapenerako oposizio-lehiaketa bidez esleitu da, eta beste biak, txanda irekiko oposizio-lehiaketa bidez. Eskaintza maiatzaren 27ko GAON argitaratu zen.

Astigarraga gaur, 'Herri Txiki' saioan

ASTIGARRAGA TELEBISTA

Gaur gaueko 22:00etan ikusi ahal izango da, ETBlen, *Herri Txiki Infernu Handi* saioa atal berria. Gaurkoan, Astigarragan ibiliko dira Pagadi eta Gurrutxaga.

Itxas-Buru Sagardotegia
Ekainaren 4an irekiko ditugu ateak
Ostegun gauetik igande eguerdira. Covid-19 egoera dela eta, arauak betetz, beharrezkoa izango da mahaia erreserbatzea. Aldez aurretik, mila esker.

Osñaga Auzoa
20120 HERNANI
TEL. 943 556 879
www.itxasburusagardotegia.com

BRINTZA
Aholkularitza - CONSULTORIA

Lan-Aholkularitza
Fiskala
Aseguruak Inbertsioak
Zerbitzu Juridikoak

www.brintza.com
URBIETA KALEA 15, HERNANI
Tel: 943 33 12 67 Fax: 943 33 08 92

DORRONSORO
OHINEGIA

Ogi egin berria beti zure eskura

Obradore nagusia Akarregin
Akarregi poligonoa 14A-2
DENDA, KUTIXIAK ETA KAFETEGIA
Ordutegia: 5:30-14:30 / 16:00-20:00
Jailegutan: 7:00-14:30

Denda herriko kaxkoan
Lizeaga kalea 4
OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN
Ordutegia: 7:00-14:00 / 17:00-21:00
Jailegutan: 7:00-14:00

GAUR Goizean giro eguzkitsua izango da nagusi, eta bero egingo du, hego-ukituko haizea medio. Pixkanaka, brisa sartu, lainotu eta ekaitzak jotzeko arriskua izango da. **Min.15° / Max.28°**

BIHAR Hego-haizearekin hasiko da eguna, eta eguzkia eta lainoak tartekatuko dira zeruan. Arratsaldean, iparraldera egingo du haizeak, eta laino gehiago agertuko da. Ekaitzak jo dezake. **Min.16° / Max.26°**

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** Gomez Kale Nagusia, 14 (Hernani) **943 554892** Gauez: Urrutia Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



«Merkataritzaz gain, familiek ere lehentasuna izan behar dute»

Mikel Duran, PSE-EEko bozeramailea pozik agertu da, «PSE-EEren eskariari esker, 135.000 euro gehitu zazikielako 400.000 euroko laguntzei».

ASTIGARRAGA PSE-EE

Astearteko Plenoan aho batez onartu zen Koronabirusak eragindako ondorioei aurre egiteko Udala Plana, eta PSE-EE pozik agertu da horregatik. Baina «familiek lehentasuna» izan behar dutela azpimarratu du.

Eremu pribatuari, arreta publikoa

Udal Plan horrek hainbat dirulaguntza jasotzen ditu, besteak beste, merkataritza eta ostalaritzari bideratutakoak. Baina, horrez gain, familiei laguntzeko partida bat ere gehitu da, «PSE-EEren eskariari esker».

Hain zuzen, Mikel Duran, Astigarragako PSE-EEko bozeramaileak azaldu du «eremu pribatuari badagokio ere, arreta publikoa merezi» dutela, «kontziliazioaren aldeko propo-

samenek». Duranen hitzetan, «eskolaratze adineko umeak dauzkaten familiek telelanean egin behar izan diote aurre konfinamendu luze honi, eta haurrek ezin zuten ez eskolara joan, ez eta aitona-amonekin geratu ere, kolektibo zaurgarriena eta sintoma larrienak izan zitzaizkeena zelako. Egoera hau kritikoa da bihurtuko da enpresek eskatzen dutenean, batzuk dagoeneko egin duten bezala, aurrez aurreko lanera bueltatzeko, eta are larriagoa izango da guraso bakarreko familietan».

Horregatik, Duranek nabarmendu du «PSE-EEren eskaerari esker Udalaren 400.000 euroko laguntzei 135.000 euro gehitu» izana, «bideratuko direnak zaintzara, Udaleku zerbitzuak laguntzera edota feminizatutako sektoreetarako kontratazio programak bultzatzera».

Azken horri lotuta, bozeramaile sozialista arduratuta agertu da telelanean aritzeko ezintasunak izan ditzakeen ondorioekin, «bereziki, emakume langileen kolektiboaren kasuan, askotan, haien lan ibilbideari uko egitera behartuta egoten baitira, familiaren zaintza ez baztertzeko».

Telelanari lehentasuna, aurrerantzean

Duranek nabarmendu du «tokiko merkataritza eta ostalaritza, hala nola enpresak ere, babestea garrantzitsua» dela, baina «familiek lehentasuna izan behar» dutela dio.

Horrez gain, gehitu du Pedro Sanchezen gobernuak ezarritako alarma-egoera bukatzean, «telelanak enpresentzako lehentasuna» izango duela, nahiz eta «ez diren mantentzera derrigor-tuta egongo». Dena den, kasu askotan langileek «normaltasunez eta eraginkortasunez» egin dutela azpimarratu nahi izan du. **K**

Goizuetan ere, ohiko fiestarik ez aurten

«Irudimenez eta arduraz jokatzeko garaia» dela azaldu du Festa Batzordeak, «elkar zaintzarako».

GOIZUETA FESTA BATZORDEA

Ostegun arratsaldean bildu zen Goizuetako Festa Batzordea, eta «egungo egoera arretaz aztertu ondoren», erabaki zuen «Goizuetan orain arte ezagutu ditugun moduko festak ezingo direla egin».



Fiestak nola egin aztertzen ari da Jai Batzordea. Argazkia: Felix Loiarte.

Hala ere, Festa Batzordeak elkartzeko duela azaldu du, «Segi dezagun elkar zaintzen, orain arte egin dugun bezala». **K**

dimenez eta arduraz jokatzeko garaia» dela azaldu du. «Segi dezagun elkar zaintzen, orain arte egin dugun bezala». **K**

AEKren bulegoak irekita, bihartik

Hernani eta Astigarragakoak astelehenetik ostegunera irekiko dira, eta Urnietakoa, asteartetik ostegunera.

ASTIGARRAGA-HERNANI AEK

Jakinarazi dutenez, Hernanialdeko AEK euskaltegiek atek irekiko dituzte, bihartik aurrera. Bai Hernanin, bai Astigarragan eta baita Urnietan ere, bulego-ordutegia zehaztu dute, nahi duena bertaratu dadin. Hori bai,

aurretik hitzordua hartu behar da.

Hernanin astelehen eta asteazkenetan 10:00etatik 13:00etara irekiko da, eta astearte eta ostegunetan, 17:00etatik 19:00etara. Hitzordua hartzeko, hernani@aek.eus helbidera idatzi edo telefonoz deitu: 607 592 864.

Astigarragakoak 10:00etatik 13:00etara irekiko da astelehen eta asteazkenetan, eta 17:30etatik 19:30etara, astearte eta ostegunetan. Hitzordua hartzeko, astigarraga@aek.eus helbidera idatzi edo deitu 688 746 639 edo 607 610 687 zenbakietara.

Urnietakoa, berriz, asteartetik ostegunetan 10:00etatik 12:30etara eta asteazkenetan 16:30etatik 18:30etara irekiko da. Hitzordua hartzeko: 662 338 747 edo urnieta@aek.eus. **K**

Bulegoa irekita Auzo Udalak, astean bi egunez

Astearte eta ostegunetan aurrez aurreko zerbitzua emango da 09:00etatik 14:00etara.

EREÑOTZU AUZO UDALA

«Iritsi da normaltasunera itzultzen hasteko momentua», Unai Erroitzenea Auzo Udaleko alkatearen esanetan. Horrela, Auzo Udaleko bulegoa irekitzen hasiko dira.

Oraingoan, astean bitan irekiko da: astearte eta ostegunetan, 09:00etatik 14:00ak arte. Gai-

nontzeko egunetan, osasun krisia hasi zenetik egin den bezala, telefono eta posta elektronikoko bidezko arreta emango da 16:00ak arte. Telefono zenbakia 943 55 10 00 da, eta posta elektronikoko helbidea ereinotzu@ereinotzu.eus.

Bide batez, Auzo Udalak eskerrik eman nahi izan dizkie auzotarrei, «martxoaren 14az geroztik izandako portaeragatik».

Jai Batzordea, lanean

Asteburuan balkioiak apaintzeko dei egin die auzotarrei Jai Batzordeak. Festei begira, zerbait antolatzen ari da, eta laster emango du horren berri. **K**

Odola emateko, hitzordua aurretik

HERNANI ODOL EMAILEAK

Osasun alarma-egoera ezarri zenetik egin den bezala, odola eman eta organo-donante egiteko aukera izango da berririo etzi, ekainaren 2an, baina Goiz Eguzkin, eta aurretik hitzordua hartuta. Horretarako, 943 00 78 84 telefonora deitu behar da. Maiatzean 33 lagunek eman zuten odola.

Lau meza gaur, Hernanin eta Ereñotzun

HERNANI ELIZA

«Normaltasunera bueltatu arte» beste modu batean antolatu dira mezak Hernaniko parrokiartean. Gaur, 09:00etan eta 12:00etan izango da meza San Joan Bataiatzailea parrokiari; 10:00etan, Ereñotzuko San Antonion; eta 11:00etan, Floridan. Astelehenetik larunbatera, berriz, San Joan Bataiatzailean, eta hiletak daudenean bakarrik izango dira mezak.

'El Florido Pensil Neskak', webgunean

ASTIGARRAGA KULTURA

Kultur programazioa online eskaintzen ari da Udala. Hainbat proposamen bildu ditu orain arte www.astigarraga.eus webguneko 'Aisialdia etxean' atalean. Bestalde, gaur arte *El Florido Pensil Neskak* ikusi daiteke.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† I. URTEURRENA

Rita Belaunzaran Kortadi

2019ko maiatzaren 20an hil zen, 90 urterekin

- Goian bego -

Ritaren senitartekoei urtebetetze meza eskaini nahi diogu eta bertara gonbidatzen zaituztegu ezagutzen zenuten guztiak.

Urteurrenoko meza, GAUR, IGANDEA, goizeko 12:00etan, Hernaniko SAN JOAN BATAIATZAILEAREN parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko maiatzaren 31n

IRAGARKI MERKEAK

Garaje itxi bat alokatzen dut Karmelo Labakan. 95 €. Deitu: 687 841 817
Lokal-garajea salgai, Arantzazu Plazan (udalaxe atzean). Bi kotxerentzako dauka tokia, eta zuzenean kalera joateko irteera. Sukaldea eta komuna ditu, eta 42m2. **Deitu: 699 492 235**
Karabana txukun bat erosiko nuke. Deitu: 688 66 50 45
Sukaldari bila gabilta Hernaniko jatetxe batean, esperientzia daukana. Deitu: 943 55 64 81
liño Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**